

## **CONTRA LOS RECORTES EN EDUCACIÓN. MEJOREMOS LA ENSEÑANZA PÚBLICA NO AL GASTO MILITAR**

La Koordinadora Antimilitarista Kakitzat y el sindicato Steilas **denunciamos el incremento del gasto militar mientras se recortan los presupuestos destinados a la educación pública.** Por este motivo se realizará una concentración ante la Subdelegación del Gobierno de Moyua este miércoles 18 de mayo a las 11:00. En el transcurso de esta iniciativa se realizará una parodia de un desfile militar que concluirá en la representación de un aula escolar.

Esta movilización servirá, además, para mostrar la solidaridad con las refugiadas y denunciar el gasto y el negocio militar; el cual alimenta conflictos bélicos de los cuales huyen millones de personas a las cuales no se reconoce ningún derecho.

En este contexto, de la actual Campaña de la Renta, conviene recordar que **en los últimos 8 años el Gobierno Vasco ha recortado el presupuesto destinado a la educación pública en 222 millones de euros. Sin embargo, el gasto destinado al militarismo se ha incrementado en un 7% en los presupuestos generales del Estado.** A lo que habría que añadir los 20 de millones de euros destinados desde las instituciones a la industria militar vasca a través de subvenciones directas o exenciones fiscales. **La suma de todas las partidas presupuestarias destinadas al gasto militar -incluidas en diferentes Ministerios y Departamentos- arrojan una cifra de 25.372'72 millones de euros. Vía cupo desde la CAPV se destinarán 700 millones de euros para el mantenimiento de estas políticas militaristas.**

**La falta de recursos para desarrollar una enseñanza pública de calidad es más que evidente. En la CAPV la reducción del gasto en educación se acerca al 8% desde el año 2009.** Eso supone que se pierdan miles de horas de clase por no sustituir profesorado; se lleve al límite el número de niños y niñas por aula; se recorte en material escolar; se reduzca en un 50% la asignación económica asignada a los gastos de funcionamiento de las escuelas públicas; o aumenten las cargas de trabajo exponencialmente.

**En esta línea de recortes el Gobierno Vasco está tratando de impulsar el programa “Heziberri” (la LOMCE a la Vasca) donde al alumnado se vería obligado a estudiar artículos de la Constitución española que tiene como eje prioritario la unidad de España, la Monarquía y el Ejército.**

Por todos estos motivos, **como miembros de la comunidad educativa,** y como personas que creemos en los valores de la “Educación para la equidad social y la justicia” que impartimos en nuestros centros educativos y aulas, **estamos convencidas de que los gastos -y las políticas- que apuestan por el militarismo son éticamente cuestionables.** A la par que **denunciamos que la inversión en enseñanza pública se reduzca impulsamos valores de solidaridad y acogimiento;** cuando vemos que sigue incrementándose el gasto militar y se reducen las partidas destinadas al gasto social.

**En concreto, mientras se reducen las partidas destinadas al gasto social sin embargo en los “Presupuestos Generales para 2016” se amplían en un 7% los recursos económicos destinados al gasto militar.** A lo que debemos añadir el total de la deuda contraída por el Estado español con el negocio armamentístico, la cual asciende ya a 40.000 millones de euros.

**¡NO AL GASTO MILITAR!!**

**¡NO A LA LOMCE-HEZIBERRI. NO A LOS RECORTES EN LA EDUCACIÓN PÚBLICA!!**



## **HEZKUNTZA-MURRIZKETEN AURKA. HOBETU DEZAGUN IRAKASKUNTZA PUBLIKOA GASTU MILITARRARI EZ**

Kakitzat Koordinadora Antimilitaristak eta Steilas sindikatuak **gastu militarra handitu dela salatzen dugu, eta hezkuntza publikoari bideratutako aurrekontuak, aldiz, murriztu egin direla.** Hori dela eta, elkarretaratzea egingo dugu Gobernuaren Ordezkaritzaordearen aurrean, Moiuán, asteazken honetan, maiatzak 18 goizeko 11etan. Ekimen honetan, desfile militar baten parodia egingo dugu, eta, amaieran, ikasgela bat antzeztuko.

Gainera, manifestaldi honen bidez, elkartasuna adieraziko diegu errefuxatuei, eta negozio militarrean xahututako dirua salatu, izan ere, horren bidez elikatzen dira hainbat gatazka, eta milioika lagunek horietatik ihes egin behar izan dute, eta gainera ez zaie inongo eskubiderik onartzen.

Errenta-aitorpenaren kanpainan gaudenez, bete-betean, gogora ekarri behar dugu **azken 8 urteotan Eusko Jaurlaritzak hezkuntza publikoko aurrekontua murriztu duela, 222 milioi euro gutxiago eman ditu. Aitzitik, Estatuko aurrekontu orokorren bidez, militarismoari diru gehiago eman zaio, %7 gehiago.** Horrez gain, kontuan hartu behar dugu instituzioek 20 milioi euro eman dizkiotela euskal industria militarri, diru-laguntzen bidez, zuzenean, eta baita zerga-salbuespenen bidez ere. **Gastu militarra bideratutako aurrekontu-partida horiek guztiek** –hainbat ministerio eta sailek eman baitituzte– **orotara, 25.372,72 euroko emaitza batzen dute. Kupo bidez, EAEk 700 milioi euro emango ditu, politika militarista hauek aurrera jarrai dezaten.**

**Bistan dago ez dagoela baliabiderik kalitatezko hezkuntza publikoari eusteko. EAEn, 2009az geroztik, diru gutxiago bideratu da hezkuntzara, ia %8 gutxiago.** Hori dela eta, milaka ordu galtzen dira, ez baitira ordezko irakasleak ekartzen; ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua estutzen da; eskola-materialaz hornitzeko laguntzak murrizten dira; %50 murriztu da eskola publikoen funtzionamendu-gastuak estaltzeko diru-kopurua eta lan-zama astuntzen da, esponentzialki.

**Murrizketa-ildo horren haritik, Heziberri plana sustatu nahi du Eusko Jaurlaritzak (LOMCE legea, euskal erara). Eredu horri segi, ikasleek Espainiako Konstituzioko artikulua ikasi beharko lituzkete, eta horien ardatz nagusiak dira, besteak beste, Espainiaren batasuna, monarkia eta armada.**

Hori guztia dela medio, **hezkuntza-komunitateko kide garen aldetik, eta sinetsi egiten dugulako gure eskola eta ikasgeletan irakasten ditugun baloreetan, alegia, "Justizia eta berdintasun sozialaren aldeko hezkuntzan", zalantzan jartzen ditugu gastu eta politika militaristen etika. Hezkuntza publikoaren aldeko inbertsioa murriztu dela salatzeaz gainera, elkartasuna eta abegi ematea bultzatzen dugu, are eta gehiago orain, gastu militarra handitzen ari baita, eta gizarte-gastua gutxitzen.**

**Zehazki, gizarte-gasturako partidak gutxitu dira; 2016ko Aurrekontu Orokorretan, ordea, handitu egin dira gastu militarri eskainitako baliabide ekonomikoak, %7 handitu ere. Horrez gainera, kontuan hartu behar dugu Estatu espainiarraren zorra, armagintzarekin lotuta: 40.000 milioi euroko zorra, hain zuzen ere.**

**GASTU MILITARRARI EZ!!**

**LOMCE-HEZIBERRIRI EZ! EZ MURRIZTU HEZKUNTZA PUBLIKOA!**

